Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko uztailean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko uztailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.138 izan da, uztailean baino 1.063 gutxiago eta joan den urteko uztailean baino 206 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko uztailean 157 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 516 Gipuzkoan eta 465 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 45,3 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 40,9 Bizkaiakoetan eta % 13,8 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 18,8 murriztu dira eskaintzak (108 eskaintza gutxiago). Bizkaian 544 eskaintza gutxiago izan dira (% 53,9ko beherakada) eta, azkenik, Gipuzkoan 411 eskaintza gutxiago (% 44,3ko jaitsiera).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 6 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 4ko hazkundea, Bizkaian % 19,2 hazi dira eskaintzak (75 gehiago), eta azkenik, Gipuzkoan % 32koa da hazkundea (+125 eskaintza).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 25,1 zientzietako teknikarien profilerako erregistratu dira (286 eskaintza); eta, % 16,8 zerbitzuetako profilerako (191 eskaintza). Ez kualifikatu, industria eta laguntzako teknikarien lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute;166,160 eta 146 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 9 eta 3 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztietan murriztu dira eskaintzak. Gehien murriztu diren eskaintzak, balio absolutuetan, laguntzako teknikarien profilekoak izan dira (309 eskaintza gutxiago, % 67,9ko beherakada); balio erlatiboetan, berriz, beherakada nabarmenena lehen sektoreko eskaintzatan gertatu da (% 81,2ko beherakada, 13 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil gehienetako eskaintzak hazi dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, zientzietako teknikarien profilekoak izan dira (121 eskaintza gehiago, % 73,3ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, zuzendarien profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 125eko hazkundea, 5 eskaintza gehiago). Murriztu diren eskaintza bakarrak, zerbitzuetako eskaintzak eta lehen sektorekoak izan dira; 7 eta eskaintza 1 gutxiago, % 3,5 eta % 25eko beherakada, hurrenez hurren.

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 30ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 69,6k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,4ak, merkataritzakoa. Kontratu mugagabea eskaini duten eskaintzen portzentaia altua da; 2021etik zetorren joera indartzen ari da 2022an. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 341 izan dira, aurreko hilabetean baino 331 eskaintza gutxiago (% 49,2ko beherakada). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 716 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 792 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan beherakada % 47,5ekoa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko uztailean 5 izan dira, aurreko hilean baino 16 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 196 gehiago izan dira (% 135,2ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 1 hazi dira; 8 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, azkenik, 2 gehiago erregistratu dira, guztira 5 izan dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko uztailean erregistratutako lan-eskaintzen % 82,1ek, 934 eskaintzak, 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 10,2k (116 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 1,1ekoko pisua dute (13 eskaintza) eta, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duen eskaintza 1 bakarrik egon da hil honetan (eskaintza guztien % 0,1).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak murriztu dira. Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (833 eskaintza gutxiago, % 47,1ko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, 1-3 urtetik arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak, % 59,7ko murrizketa izan baitute (109 eskaintza gutxiago).



Urte arteko eboluzioari dagokionez, gehien hazi diren eskaintzak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (226 eskaintza gehiago, % 31,9ko hazkundea). Beste muturrean, balio absolutuetan gehien murriztu direnak, 6 eta 12 hil arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (11 eskaintza gehiago, % 366,7ko hazkundea).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 13,4k zehazten du datu hori (1.138 eskaintzetatik 153). 153 eskaintza horietatik, 132k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 21ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 139 gutxiago izan dira ekainarekin alderatuz, hau da, % 51,3 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 15 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 41,7koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 21 gehiago izan dira (% 18,9ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 14 gutxiago (% 40ko beherakada).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 14 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 53 eskaintza gutxiago eta aurreko urtean baino 1 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 84,5ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.138 eskaintzetatik 166k soilik zehaztu dute.

166 eskaintza horietatik, 69k unibertsitateko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, LHko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 68 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (31 eta 8 eskaintza, hurrenez hurren).



Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, mota guztietako ikasketen eskaintzak murriztu dira. Gehien jaitsi diren eskaintzak, balio absolutuetan, LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (57 eskaintza gutxiago, % 45,6ko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, murrizketa handiena batxilergoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzetan izan da (%68ko beherakada, 17 eskaintza gutxiago).

2021eko uztailarekin alderatuta, eskaintza mota guztiak hazi egin dira. Gehien hazi direnak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira 32 eskaintza gehiago jasota (% 86,5eko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena jarduera manufaktura industrien profilekoa da; honen pisua eskaintza guztien % 15,6koa izan da (178 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat osasungintza da, eskaintzen % 10,7ko pisuarekin (122 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, ia eskaintza guztiak murriztu dira. Balio absolutuetan, gehien jaitsi diren eskaintzak, manufaktura industriak izan dira (254 eskaintza gutxiago, % 58,8ko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, beherakada nabarmena aisialdiko jarduerek izan dute (% 82,6ko murrizketa, 38 eskaintza gutxiago). Beste muturrean, higiezinen jarduerak daude, hauek izan baitira hazi diren bakarrak (3 gehiago, % 37,5eko gorakada).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza gehienak hazi dira. Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutuetan, administrazio publikokoak izan dira (47 eskaintza gehiago, % 138,4ko hazkundea); balio erlatiboetan, berriz, gehien hazi direnak higiezinen jarduerak izan dira (% 175,5eko igoera, 7 eskaintza gehiago). Bilakaera okerrena izan duten eskaintzak, aisialdikoak izan dira; 15 eskaintza gutxiago eta % 65eko beherakada.